

Ana Urkiza Ibaibarriaga

I-1989

Orain Mutrikun (Gipuzkoa) bizi bada ere, Ondarrun (Bizkaia) jaio zen 1969an.

Lizentziaduna da Informazio Zientzietan eta Diplomaduna Hizkuntzalaritzan.

Enpresa-Komunikazio ikasketak Toulousen (Frantzia) burutu zituen eta arlo honetan aritu izan da eta ari da gaur egun ere.

"Aixe-bolari" aldizkariko zuzendaria eta Ondarruko Udalaren Informazio Zerbitzuko Arduraduna izan zen eta egun Danobat Taldeko komunikazio arduraduna da.

Literaturgintzan berriz, zenbait aldizkaritan ihardun du laguntzaile gisa (Karmel, Arranondo, Ondarroa, Algacena...).

1985tik 1996ra bitarte hamaren bat lan argitaratu ditu, hauen artean Santa Teresa Lisieuxkoaren idazlan guztiak euskaratu ditu frantsesetik.

Bestalde, azken hamahiru urteotan 21 literatur sari eskuratu ditu.

MENDIAN LAR ARTEAN

OHARRA: Istorio bera kontatzen da eskuineko, eskerreko nahiz eskuin-esker zutabeak irakurriz.

gaua urduri igaro zuen
ohizkoa zen bezala
ibarako besapea bete jantzi hartu,
eta ilunpean auzoa utzi
zerua gorri
belarraren usaia somatzen zen
sudurrari kilikagarri zitzaion usaia
auzunea osatzen zuten txabolatxoak,
ez zuen Athel salatuko,
egunberriari diosala egin,
lur lehorraren gainean hankak irmo,
bideari lotu zitzaion
zeru hertza laranja
kawarien hegoek elkar harraskatzen
phatirien narrashotsa
thefarisen harnashotsa
aguayu kanthotsak...
zerua hori xamar
eta ibaiaren zurrumurra entzuten
MENDIAN LAR
uraren marmarrak
etengabeko zarata amaigabeak
egunerokotasuna zekarkion burura
asaben berriketa errepikakorra...
BART, aitonak kontatutakoa,

goizean goiz jeiki beharra zuelako edo
gaua urduri igaro zuen.
lastoz eta banbuz eginikako etxea agurtu
eta oihanean barrena abiatu zen.
ez zuen ezer entzuten,
goizeko ihintz hezea zuen sentitzen
gorpua lo mozorrotik esna arazteko ihintza.

auzune zaharkituak
ezaguna zuen bere betebeharra.

birikiak irekiz arnasa hartu eta
eguzkiak larru beltza berotu aurretik,
ibairantz gidatu zituen bernak...

lehen zaratak entzuten zituen
nawmarien hankahotsak
twaiken lasterketa motelak
eta aldamenetako auzokoen lehen agurrak
eta dan-banban-dan tanborrak...
ohiana esnatzen
ibairako gutxi falta...

ARTEAN...

Ibaitik zetorkion hezetasunak
goizero aurpegia garbitzen zion eurixeak
tradizioa gomutarazten zion
arratsoroko istorioaen argudio bera...
betiereko ipuia

gogoratu zuen Athel-ek...
Herriaren historia laburrak

«tradizioak azaltzen duenez
herriaren baliabide nagusiak
bizitza aldatuko digu noizbait,
garapenaren aurrerakuntza
ukaezina da
ondo gogoratzen dut nik

hasierako kargamendu haiek
garraiobide traketsetan zetozten
zuen amona eta biok
goian bedi nere Akhana maitea,
gogoan dugu biok
(amona bizirik balego
bezala hitzegiten du beti)
nolakoak izan ziren hasierak

porturatzen zitzaizkigun
lehen kargamentuak,
altzairuzko tresnez josita
heltzen ziren kaira

kanoen ondoren
belauntzi ikaragarriak
ezagutu genituen
produktu iraultzailez beterik,
1919. urtean
belauntziak ahantzi eta
baporezkoak ikusi

untzi hauei esker
aiztoak
irratiak
bizikletak
eskuratu

eta ezagutu nuen baita
horrela zioenik:
lantegiren bat
edo entrepresaren bat
zabaltzeko zirela

jendearen istorio bereziak,
kontatu zizikion Athel-i aitonak, BART...

kargamentuak,
eraberritzea dakarkigu
gure arbasoek idatzia denez
bizimailaren hobekuntza
begibistakoa dugu
ez dut ahantziko ez

zein egoeratan gureganatzen genituen
lehendabiziko objetu bitxi haiek
gazteak gineneko garaiaz oroituz,
herri honen urratsak ikusten ditut
denboratxotik gogoan izan ere
(Oh, amona bizirik balego...!
amona bizirik balego...)
zernolako aldaketak jasan genituen...

lehendabiziko txalupatxoak
kanoa antzekoak genituen;
pospoluz gainezka
beti ezin gehiagoan...

belauntziak gero
arrozez eta patataz beterik
okela nahiz zapatak zekartzatelarik
porturatuz
Akhana gaisotu zen garaia,
lurrin ontziak
genituen hurrengo

untzien ahalmena zela eta ez zela
errifleak
autoak
etab.
erabiltzen ikasi genituen

auzuenan
zuriek
enpresa handiren bat
irekiko zutela,
uste zen, bederen.

nere Akhana maiteak
asmo hauek
ez zituen egiaztatuta ikusiko
(eta jarraitzen du)
tradizioak azaltzen duenez

gure bizimodua hobetu
tresnen domeinua eskuratzerakoan
ez omen gara
misiolarien domeinupean
egongo

argi utzi zuten
auzoa eraiki zigutenek
gure sinesmenek
hilezkortasuna dakarkigutela
gure senideek esana
kargamentu nagusiaren zai
itxaropenez
egoteko

kargamentu nagusiaren etorrerak
dakarkigu
amaigabeko bizitzarako zoriona

behin eta berriz
aditzen
zuten gazteek
arbasoen bizia
mantentzeko
baliagarria
izan zen
istorio laburra

eguzkia esnatzen zenero,
ez zegoen
txabolatxo bakoitza
zergaitik
zer dela eta irekiko zen
antzeman beharrik
ez zegoen
eguneroko lana

ez zituen ezagutuko
gure amonatxoak
helburu berri hauek
arbasoek idatzia da
aurrerakuntza guzti hauek direla eta.

helburu berri hauek
arbasoek idatzia da
zurien menpekotasunean
sekula gehiago
sekula, santan.

gure aitona-amonek
gogoz aldarrikatu zuten
tradizio luze hauek
betiko bizitzara garamatzatela
eta gure auzuneak errepikatua da
zurien azken kargamentuaren zai
eta eskuak nahiz bihotza zabalik
noiz helduko itxaroteko.

betirako bizitzaren sorrera
zurien azken kargamentuaz
datorkigu»

sinesmen berriak
auzoko kultura
aitonaren ezpainetan
entzuten zuten ilobek
honela, etxeko KATONA
ahantz ez zedin,
horra hor, nolabait
herriaren justifikazioa.

ihintza gozaldu artean
ez okurritu
auzoa zertarako den
galdetzerik
zeregina besterik
ez zegoen
ez...
izerdiz blai eginda

zer izango zen
itauntzerik

ez zegoen
ideia
sentimendu,
itxaropen berrien
zai egoterik
ez zegoen
gizonek zer lan
egingo zuten
asmatu beharrik

dena zetorren
urrezko orrietan

baina
«politikan zama handiak hartu
eta gero bihotza hestu
erlijioa
dago Jainkoen esku
botererik ez guk
hobe
lixibaz besterik
ez arduratu

gogoeta hauen ondoren
jantziek ibaiko harria
jotzerakoan
ateratzen zuten erritmoari
jarraituz
kantatzen zuen Athel-ek:

BAT (harrian)
BI
IRU
LAU
BOST
SEI
ZAZPI

kexuak zer zirenik
gabe

ez...
errutinatua
errutinatzailea
errutinakuntzaren
errutina besterik ez
ez
zer
egin
gaur?

den-dena
idatzita...

amonaren esaera da:
heriotza gertu
ezin lasaitu
etorkizuna dela eta
ez izan damu
inork ez du hori bere esku
horrela bada,
jo eta ke
lanean aritu»

jo eta ke
dinbi-danba
zrist-zrast
gogoetak alde batera utzita
amonak irakatsia
errepikatzen zuen:

MATXIN BARRABAS (uretan)
MATXIN IPURDI
KOLKUA BETE DIRU
IKOMELAU
PITO MOTZ
ANKA MEI
AZPI

ZORTZI
BEATZI
AMAR
AMAIKE
AMABI
AMAIRU
AMALAU

AMABOST

ibaietako losen zereginak
infinituak
eta mugagabeak izan dira;
aski ongi dakigu:
berriketan ibiltzeko
maitaleek elkar ferekatzeko
laztantzeko
leku apartak gertatzen dira

Athel urduri zegoen
«etorriko da»
pentsatu eta
artegaz

baina...
laister agertu zen
zuhaitz artetik
hainbeste zalantza
eduki arazten zion
galaia

AURKITZEN DA

Athel: urduri neuan
Thagarab: itza ematen detenian
pentsaten zendun ez nuala eingo, ez da?
Athel: ez, ez da ori!
Thagarab: bai, ori ra

NESKIAREN KORTZI
JO ETA ERATZI
KABO DEL MAR
LUKAINKE
EUGENIO KALTZA ANDI
EGIA PASTELERU
MIGUEL HAMALAU

TXORDO PITO MOTZ!!!

anitzak dira
esan behar
maitale bik
eguzkitan
nahiz ilargitan
egiten dituzten ahaleginak
eta musukatzeko
bi aldiz

lau orritan
«ez da etorriko»
esan zuen
Athel-ek

miraria bailitz
Athel-ek
bere ametsa
arrazoia
ikusi zuen

NESKATXO BAT...

nun on arte?: Athel (1)
ez naiz atzera botatzen
einyako promesia: Thagarab (2)
ori ez! . Athel (3)
beti betetzen det prometiutakua (4)

Athel: ixe-ixe bat be
ez dou alkar ezautzen
Thagarab: nik ezauten dizut
Athel: ezin nazu ezautu
Thagarab; badakitx, nun bizi zean
Athel: ori ez da naiku
Thagarab: nik ikasi nai det
Athel: zer da
ikasi nahi dosuna
Thagarab: dana
Athel: ixe-ixe ezin dogu
alkar
ulertu
Thagarab: nik ikasiko ret
Athel: zu zurixe zaz
ta ni ostea...
Thagarab: dotoria
Athel: nundik zatoz?
Thagarab: musu politxa rekozu!
matxo bat
emango nizuke
Athel: zer?
Thagarab: muso bat
emango nizukela
Athel: era horretara
hitzegiten
Thagarab: entenitzen?
Athel: noski baietz
Thagarab: konturatu barik
irten zat
nola da posible
ni ulertzea
Athel: zuriekin ulertzeko
berbeta hau
irakatsi zidan
misiolari batek
beti esan bait zidan

ez dakiau
ixe: Athel (5)
nik badakitx zurengain (6)
ezin jakin zelaku nazen (7)
noa juaten zean badakitx (8)
orrek ez dau ixe esan nai (9)
auro ikasten det (10)
erakutsi bihar deutsudana
zer da?: Athel (11)
dan-dana: Thagarab (12)
zuk eta nik
entendiu
biarra dakau lenengo ta!: Athel (13)
laster jakingo ret ze nai dezun (14)
zure azala zurixe ra
ta ni ostea...: Athel (15)
oso ederra: Thagarab (16)
nungu zaz?: Athel (17)
zure musua gustatzen zat
sudurrean
musu bat: Thagarab (18)
zer esan dosu?: Athel (19)
musuan
patxo bat: Thagarab (20)
ba al dakizu
hizkera horretan?: Athel
ulertzen?: Thagarab
noski ulertzen dodala: Athel
pentsatu gabe
esan dut;
zuk nere hizkuntza jakitea
nola diteke?: Thagarab
zure hizkera berbera
izan ez arren
berdintsua
aditzera eman zidan
apaiz batek

maistra izateko
jaio naizela
Thagarab: nola diteke orain
zertaz ari garen jakitea
Athel: hizkera hau irakatsi
zidan apaizak
egunen batetan
hizkera honen balioagatik
gerran
izango ginela eta
Thagarab: nola diozu?
Athel: bai, errixetan, gudan
Thagarab: orain bai
Athel: ene!
Thagarab: zer da?
Athel: ez al duzu entzun laprastik?
Thagarab: zer?
Athel: norbait dabilela uste dut
Thagarab: nor?
Athel: ez dakit
Thagarab: ez da ezer
Athel: joan zaitez ikustera
Thagarab: zertan?
Athel: ez nabilela txantxetan!
Thagarab: thefarisak dira
inor ez

bere burua urduri ikusteak
senti arazten zuen
errudun
bailitz

bazekien
bazekien
bazekien
bazekien
bazekien
bazekien

ni
eskolatua naiz
elkar ulertzea
posible al da?: Thagarab
ez ahazteko esan
eta
arrazoiak eman zizkidan.
gainera zetorkigun
auskan
elkar hilgo genuela esanez.
auskan?: Thagarab
burrrukan: Athel
horrela ulertzen dut: Thagarab
ixo!: Athel
zergatik egon behar dut isilik?: Thagarab
hanka hotsik entzun ez?: Athel
non?
hor hosto artean: Athel
zein izango da ba?: Thagarab
beldur naiz: Athel
ez dago inor: Thagarab
ez nabil olgetan: Athel
olgetan?: Thagarab
joan zaitez ikustera!: Athel
ikusten?: Thagarab
kawarien zarata hotsa besterik ez.

zergatik ordea?
maitasunak
Athel
itsututa zuen

etxekoek ez
auzokoek ez
herrikoek ez
bere azal beltzak ez
arrazoiak ez

ezetz

bihotzak bai
buruak ez

Athel: joan beharra dut
Thagarab: nora zoaz?
Athel: ikusten nere otzara?
Thagarab: bai
Athel: etxeratu beharra dut
Thagarab: noiz ikusiko zaitut?
Athel: iluntzean
Thagarab: nik ere ez dakit
gauza asko zutaz
Athel: maite nauzula
diozu
hori
ba al dakizu?
Thagarab: bai
Athel: orduan...

agurtu ondoren
bikotea
etxerako bidean
lasaiki

etxera heltzean
gurasoek egunetan
bueltaka zerabiltena
galdetuko ziotela
bazekien Athelek

nola esan
nor zen?

Ama: gaur bere
egon zara
Athel: Mmm!

esango zutela
bazekien
zalantzak alde batetik
beldurra bestetik

berandu da: Athel
goiza da oraindik: Thagarab
begiratu jantziz betetako otarra: Athel
eta?: Thagarab
bueltatu beharrez nago: Athel
noiz ikusiko dugu elkar?: Thagarab
zazpirak inguruan: Athel
zer jakin dezaket
maitasunak nik: Thagarab
esango
munduari
gutxienez
maite nauzula?: Athel
ziur: Thagarab
gero arte beraz: Athel

denbora ere aurrera eta
bakoitza bere
ildotik
joan zen

Athel zai zegoen
mutilari buruz
goiza edo beranduago
eta galdetuko ziotenari
zer erantzun emango zion

ez zekiela
nola esan?

berandu zatoz
mutil orrekin berriketan?: Ama (21)
bai!: Athel

Ama: eta?
Athel: zer eta?
Ama: ez al deuskusu
Ezer be kontatu nai
Athel: kontatu?
Ama: esan eigusu
nungoa dan
Athel: ez deust
ortaz berba egin
Ama: baina
bere gurasoak
zeintzuk diran
jakingo dozu

Athel: ez
ez dakit
ez deutsak itaundu
Ama: eta bizi
Athel: ez dakit
Aita: Athel
errikoa izanda
zure amak eta ni
derrigorrez ezagutu bihar
bere gurasoak
eta
beraiekin berbetara
joateko
esaisu
nor dan mutilori!
Athel: ez dosue ulertzen?
ez da erri onetakoa
Aita: beraz...
Athel: ez dakitela!
baina
abadeak erakutsi eustan
antzeko berbetea
ezagutzen dau

berririk?: Ama
zer berri?: Athel
zer edo zer
gurasuoi? Ama (22)
zer?: Athel
gitxienez
zeintzuk dittuan gurasoak: Ama (23)
sosik esan
barik ibilli gara berriketan: Athel (24)

gitxienez
aita ta ama
ezagutu bai
ez da? Ama (25)
ez dodaz ezagutzen
gurasorik badaben edo ez
ez dakit: Athel (26)
nun bizi da ba?: Ama (27)
ez dot esango: Athel (28)
ez al dosu ulertzen?
auzo txiki onetan
egun biren buruan
dana jakiten da.
zeintzuk diran
edo
ezagutzak egiten asteko
edo jakitun egoteko bada bere
nungoa dan
esan etta kitto!: Aita (29)
ulertu nai ez?
ez da emen bizi: Athel (30)
nungoa dogu?: Aita (31)
ez deustala esan!
nik dakiten
berba egiteko modua
dabil
beraz, abadearen auzo berekoa izango da (32)

Aita: berbeta arraro ori
dakian beste bat!
zuri
maistra lekua kentzera
etorritako arrotzen bat
izango da
Athel: ez aita
Ama: Athel,
auzo onetako
maistra izan
biar dosu
horrela bada,
ez berbeta ori
erdipurdian ikasi dauan
orrekin
erlaziorik izan
lekua kendu naian
aldamenetik ibiliko dosu ta
Athel: ez du
ez niri postua kendu biarrik
berbeta ori
berea dau, bere-berea;
ez nik bezala
ikasia
ez dosue ulertzen?
bera zuria da!
Aita: zer?

txabolatxoa dardarka
gelditu zen
zer jasan ezin jakinik

Aita: Athel!
gizon zuririk ez
–ohiu egin zion aitak–
hitz gehiagorik ez

Athelek
ez zuen

zutaz gain
inork ez zekiala uste genduan
alabatxo
gure ondasunen naian dabilen
etsairen bat
seguraski: Aita (33)
oker zabiz: Athel (34)
maite
neskak
erakustea dabe amets egiten, beraz,
aukera probetxatu
abadeak erakutsi eutsuna
ikastea izerdiz pagatu eta
mutil orreri postua utzi ondoren
damu izan
aurretik,
usainean dabilen artean.
moztu len bait len: Ama (35)
berak ez dau ikasi biarrik izan
bere bizitza
nirea bezain ederra
jaiotzatik dauka;
alkar ulertzeko egina
da gure patua.
adiskide, lagun zuria
lagun zuria!: Athel (36)
zuria?: Athel

Athelen aita aho zabalik
ezin ausnarturik
zegoen

–garrasi batez esan zion aitak–
ez da sartuko
nere etxean ez!
arrazoietan pentsatzen gelditu gabe

bide txindorrik ez
herrirako bidea besterik hartu

arratsaren
zai egoterik izan
etxetik irtetzeko

etxetik
alde egin

eta
esperotea besterik
ez zegoen

helduko zen
ordua
noiz helduko, hala ere,
gazteek nahi baino
beranduago

Athel: nor zaren
jakin nahi dut
Thagarab: arrats ona
baino lehen?
Athel: txantxarrik ez
Thagarab: urduri ala?
Athel: bai!
gure herria
salbatzera datorrena,
Jainkoa,
zu zarela
pentsatzen du
nere buruak;
ez da
sentitzen lasai
nahasturik
dabil
nondik nora gabe

mutilak
irribarre goxoa
Athel: ez didazu
ezer esan behar

ordu eder eta luzeak
gabe
arrazoiak ezagutu zituen

eta mutilaren ahotik
edo ikuspuntu ezberdinak jaso

ez zen falta
denbora apur bat besterik
mutila ikusteko

garaia
galdetzeko
pausokoa eta
gero eta pausatuago
helduko zen

esan behar didazu
zerbait zutaz!: Athel
eskeini
musu bat: Thagarab
serioski ari natzaizu: Athel
dadarka? beldur?: Thagarab
harriturik ala?
irrikiz dago auzo guztia
txirotasunetik atera behar gaituena
ezagutzeko,
esaten du
herriak
iraultza dela erantzuna;
lan egin arren
aberastasunik ez agerian;
misiolarien aurka
gorrotoa lege
armak eskuratu beharrean: Athel

erantzunik ez
Athelek.
sosik
ez?: Athel

Thagarab: ez dut
ezer esatekorik
Athel: beraz,
esan
zer musukatu
behar dizudan
eskua
oinak
edo
ezpainak
Jauna,
Señor
izenez
hitzegin behar al dizut
Thagarab: nahi dena
musukatzeko
eskubidea duzu
eta
dei nazazu
Thagarab
Athel: ongi da
Thagarab: etorri nirekin
Athel: nora?
Thagarab: bion artean
sekretu bat
izatea
nahi?
Athel: zer sekretu mota?
Thagarab: egin dezagun
bion artean
zerbait
Athel: zer egin
Thagarab: bion izena
bion eskua
bion asmoa
itsatsiko diogun
zerbait

deus
ez: Thagarab
orduan
azal iezadazu
zer sinetsi
zer ferekatu
behatzak
bernak
eta
masailak?
Jakingo
edo jaun
deitu eta
erantzungo ote duzu?: Athel
sinesteko eta
maitatzeko nahaia
ziurtasuna
besterik baduzu
hemen izango nauzu
zerbitzeko: Thagarab
zuk esan duzun bezalaxe: Athel
zatoz!: Thagarab
zertara?: Athel
zuk eta nik
bion gauza bat eduki
eta gordetzeko posibilitatea
dugu: Thagarab
zertaz ari zatzaizkit?: Athel
zertxobait
izan dezagun
zuk eta nik: Thagarab
izan zer?: Athel
soinean eramateko, jazteko
eraikitzeko
itxaroteko
biona izango den
ilusioa

Athel: zure eta nirea?
Thagarab: bai
baina
sekretua dela
ez duzu ahantziko
Athel: ez Thagarab

Thagarab-ek
neskatila eskutik hartu
bidean gora eta behera ibili
belardietatik at jo eta
metro eta erdi karratuko
lur heze baten aurrean
jarri zuen Athel
mendiko magal izkutu batetan

Thagarab: hementxe izango da

Athelek
leku hartan
ezer berezirik
ez zuen
ikusten

Athel
Thagarab-ek
zer egingo
zegoen

orduan Thagarab-ek poltsikotik
ale ttipiñoak atera
eta eskutakada erdia
Atheli eman zion;
gero
lurra astindu,
zulotxoa egin,
aleak zuloan jarri,
zulotxoa lurrez estali,

biona?: Athel
besterik gabe
ixilean
bion artean
ez da?: Thagarab
Zuk diozun bezalaxe

kanpoan uso
barnean otso
eskuan boterearen lokarri
domeinua ziurtatu nahian edo
lehen urratsa
konfidantza irabazi nahian
bere eskuetan
Athel hartu zuen

heldu gara lekura: Thagarab

batera eta bestera begiratu ondoren
ez zekusan gauza bitxirik
Athelek,
bere burua
galduta besterik

neskatila, ez jakin zegoen
zer esango, zer eskatuko
zai
urduri.

sakeletik
pipitxak hartu zituen Thagarab-ek
zera esanez:
hemendik erneko da
gure fruitua
lurrak emana jateko
sustraiak gordetzeko
enborrari heltzeko
adarrak mozteko

poltsikotik botilatxo bat ur artera
lurra urez busti
Eta gauza bera egiteko
esan zion Atheli

Athelek berriz
ezer ulertu gabe
ale bat probatu
dastatu
eta botilari
xurrut egin zion

Thagarab: zer zabiltza?
Athel: sekulako egarriz
nago
Thagarab: hazi hauek
ez dira jateko
Athel: gozo-gozoak dira
Thagarab: ez al dizut esan
nik egiten nuena
egiteko?
Athel. Lurrak ez du behar
botilak urez
nik ordea bai
Thagarab: nahi
sekretua edukitzerik?

Athelek lotsaz
begiak lurrera
jeitsi zituen
Thagarab: erantzun
bai ala ez nire ideiari
Athel: eta non dago bada
sekretua?
erakutsi!
Thagarab: zuk egin nik esana
eta ikusiko duzu
zer jaioko den
lur honetatik

fruitua loratzen ikusteko
hostoak egarriz asetzeko
behin eta berriz
«prozesu bera jarraitu»

deus jakin gabe
haziak zertarako zirenik gabe
grauska jan
egarri izan
eta ur gardenari
Athelek zrusta botilaren ahotik

zer egiten duzu?: Thagarab
hil beharrean
gozez eta...: Athel
ura, ordea
ez da edateko: Thagarab
garden-gardena dago: Athel
maite
zer
esan dizut?: Thagarab
haziak
lurrak
zertarako?: Athel
Athel
nerekin bat?: Thagarab

masailak gorri
lotsati
burua makur
esan,
sekretua izaterik nahi?: Thagarab
erakuts iezadazu
non dagoen esan
eta erantzungo dizut: Athel
nire agindua
bete ezkero
jakingo duzu
atera daitekeen guztia

hitz gehiagorik gabe
leku hura utzi
eta batak
besteraren urratsak
jarraitu zituen
mendian behera
geldi-geldiro

Athel: Thagarab geldi
Thagarab . zer da?
Athel: berbaroa!
Thagarab: zer da hori?
Athel: nor edo nor berbetan
entzuten dudala
Thagarab: zer da nor edo nor?
Athel: norbait
Thagarab: eta berbetan?
Athel: hizketan
Thagarab: aaaa!

sasien atzean
buruak makur-makur
jabetu zirenean
ahots hotsa
nondik nora zetorren
Athelek
arnas lasaitua
hartu zuen

Athel: herriko
jendea da
ikusten?

Athelen
behatz indizeak
puntu bat
agertu nahi izan zion
Thagarab-i

han

Athelek
demagun erdi haserre
erdi izuturik
erdi ulertu ezinik
aginduak
Thagarab-ek esan bezala
onartu zituen

ez mugitu Thagarab: Athel
zer duzu?: Thagarab
entzun! Berbaroa!: Athel
zer?: Thagarab
hortik zehar
zerbait entzuten?: Athel
zer?: Thagarab
pertsonaren bat: Athel
zer da berbetan?: Thagarab
hitzegiten!: Athel
ulertzen dut!: Thagarab

hasieran
izuturik
beldurraren eraginez edo
hotza
iruditu zitzaien
hotsa,
etsaia
ezezaguna.

auzoko
gizon talde bat lanean
han taldea mugimenduan, ikusten?: Athel

begiak
iluntasunean
ikusten ohituak zeuden,
mozoloaren antzera
auzoko gau beltzak zelatan ikusten

auzo guztiaren lana

ezin zen ezer
antzeman

Athel: Ginea Berriko
mendi gailur honetan,
herriaren bizia
arnastu daiteke:
lastozko auzoa,
banbuzko txabolatxoak...

han behean
pista,
lurreratze pista
ikusten?

Thagarab-i, laister
ohitu zitzaizkion begiak
urrutiko mugimenduari
eta iluntasunari

Thagarab: zer da?
pistan ikusten den
hosto pilaketa hura?
Athel: adarrez
egindako hegazkina
Thagarab: hegazkina?
Athel: arbasoentzako sinboloa,
ezaugarria,
gure herria
non kokatuta
dagoen ikusteko
gauero
aireportuaren
mutur bakoitzean
sua pizten da.
herriko gizonek
sua piztuta edukitzeko
edo iraun arazteko
egun guztia
egurra biltzen

azaldu
zitekeen.

Thagarab: kultura eza
profitatu daiteke
herriak eskulanean duena:
BOTEREA
eskuragarria da
jendea

arbasoen ordez jartzeko,
Jainkozko irudia
beharrezkoa
da

herrian zuen botere posibleari
hau da, Atheli bere eskuak
neskatxa maiteminduari
lotu zizkion

han erdian dakusadana
belar metaketa bitxia
zer da?: Thagarab
larrez josiriko
«txori handia»: Athel
txori handia?: Thagarab
Thagarab: zein
da
erregea? Herri osoa
ote
da?
Athel: auzokoen sinboloaren
alde banatan
egurra erretzen da
egunero
Thagarab: zertarako
egiten
ote dute
gizonek
aireportu horretan

dihardute
bihar edo etzi
gure arbasoek
auzoko sua ikustean
hegazkina aireportuan utzi eta
gure benetako
askatasunaren ohiartzuna den
azken kargamentua
ekarriko digute
eta azkenengo egunaren
aldarrikatzaile
izango dira

Thagarab: beltz horiek
hogeitalau orduz
egoten dira
zelatan?
Athel: bai, Thagarab
sudurzuloetan
apaingaiak darabilten
«beltz» horien mundokoa
ni ere
Thagarab: barkatu,
zentzu txarrez
ez dut esan
Athel: bai, ba dakit
Thagarab: baina
zeren zai daude?
Athel: hegaldi
garrantzitsuaren
zai.
azkenengo
hegazkinaren
zai.
ez orain artekoak bezala
bizikletak
janariak
kontserbak

lan eta lan?
noizbait
norbaitek
nonbait
zerbait antzematen duenean
zera,
zioa
zertuko da
zerean;
zergaiti
gisa
azalpenak

gau eta egun
arbasoak noiz etorriko
itxaropenez
zai?: Thagarab
bitxiak
jazten dituzten
horien artekoa
naizela
badakizu: Athel
ez hartu
mesedez
irain bezala: Thagarab
ez du axola . Athel
zergaitik eta
noizdanik hain urduri?: Thagarab
egun,
zai
beti.
ametsaren
zai
beti.
gure kargamentuak
nahi ditugu
orain artekoak
gizon zuriarenak

jantziak...
jostailuz betetako
kargamentuak...
baizik eta azkena!
azkena!
Thagarab: zer esan
nahi duzu
«azkena» dela
esatean
Athel: misiolariek
urteak diraute
lan gogorretik
lortutako aberastasunak
askatuko gaituela
esanez.
eta profetek
idatzi zutenez,
aberastasunak
beste lurralde batzuetan
aurkitzen direla
irakatsi digute.

Athel: profetek esana
gaurko antzeko
arrats ostean
helduko dela
asaben mundua
landutako
aberastasunez betetako
kargamentua.

Athel: berriro
bizira bueltatzen diren
gure arbasoek
gidatzen dituzte
hegazkin hauek

arbasoek,
hemen bizi izan zirenean,

izan bait dira
kargamentuak eta
guzti horri ez
ez
eta besterik ez!: Athel
zuk
zer
diostazu
niri: Thagarab
gizon zuriek
gure asabek
sorturiko
kontakizunak
irakatsi digute
guri.
liburuetan
agertzen dira
arbasoak
ondasunez
josiak:
urrezko orrietan: Athel

herriak entzuna
ilargi beteko
gau batetan
jauna
errege deitua eta
fedez
laudatutako sinesmea
datorkigula: Athel

Thagarab: galdera bera daukat nik:
gorpu hilek
nola
gorpu biziak
dituzte erakartzen?: Athel

asaba zaharrek
ez omen zuten

guk orain dugun
produkturik
ez zuten ezagutzen;

horregaitik
bidaltzen digute
beraiek eduki ez zuten
hainbat gauza

arbasoek ongi dakite
hemengo gabezia
zer den

hegazkinaren motorren
zarata
entzun
dute auzokoek

auzoko beltz bat
aireportuko txabolatxoan
sartu
eta ulertzen ez duen
irratiaren botoi guztiak
zapaldu ditu
ez dago berririk
irratiaren antena
soka
eta
aihenbelarrez
«egina dago»

«hartzen al nauzue»?
«moztu»
dio beltzak

honezkero
hegazkinak
lurrean
behar luke egon

ezarritako araurik
jarraitzen
utzi.

sekretua
kargamentuan
behar
dute bidali

azaltzen
enigma
ez dakigu

zai gaude beti
nondik
hegazkina
ikusiko

gaur urduri dago
jendea:
ezetz sartu
hegazkina aireportuan;
piztu dituzte suak
bada ez bada esanez.
erantzunik ez.
gogorra gertatzen da,
gaur ere ez dago
zer
eginik

hots egiten du batek
esanez:
bat, bi, hiru... hartzen?

zergaitik
ez daude
aireportuan
hegazkinak?

zergaitik
dabiltza
berandu?

gau beroaren
zeru beltzean
erreaktoreek utzitako
ildoari
so daude.

urrunean,
zarata deskribaezin bat
entzuten da

Athel: arbasoak!
gainean ditugu!
Thagarab . joan dira!
Athel: noiz edirengo
ari gatzaizkie!
ez al duzu
ikusten?
Thagarab: ixilduko al zara?
Athel: entzuten?
azken hegazkina dator...
hemen!
hemen!

auzo guztia
irten zen
garrasika
hegazkinaren zaratara,
eroak bailiran

Athel: arbasoak gainean ditugu!

baina hegazkinekoek
mezu bat
bidali dute:

«suak piztu»-ka
garrasika
auzokoak

urratsetan
izar artean
bideari begira
zur eta lur
begiak

eta bapatean
dator
zarata

hots egiten du Athelek:
arbasoak!
ez doaz lurreratzera, Athel!: Thagarab
entzun gaitzaten
zeinuak bidaltzen
garrasi egin!
sua piztuta: Athel
ez dira arbasoak, Athel!: Thagarab
hemen!
hemen!
ikusi gaituzte!
ziur nago! Hemen!: Athel

eskuak zerura begira
zeinu arraroak eginez
eta kantuz
aireportura
irten ziren denak

hemen! Arbasoak gainean ditugu!: Athel

badaukate
esateko zera
txori handian daudenek:

«gaur ez doaz
lurreratzera»

Athel: asabak
nahastu egin dira!
Thagarab: Athel!
Athel: beste aireporturen batetan
lurreratuko ziren
ez da?

Thagarab: Athel, entzun iezadazu!
Athel: bai, horrela izan da
Thagarab: arrazoituko al duzu?
Athel, mesedez!
arbasorik
Ez da itzuliko
Athel: ez,
gaurko gaua
ez da
hilak eta biziak
bat egingo diren
gau prometatua...

bikotearen artean
ez zen
hitz gehiago
gurutzatu

bihar
noiz ikusiko dugu
elkar?
galdetu zuen azkenez
Thagarab-ek

Athel: betiko orduan

baina
luze joan zen

«arbasoak
ez datoz gaur»

gaur
ezin izan dute: Athel
ez dira arbasoak izan!: Thagarab
gordeko zuten
hor nonbaiten
egia: Athel

ahantziko al duzu istorio hori?: Thagarab
beharbada, bihar etorriko dira: Athel
miraririk
ez dago
hemen ez da agertuko
hildakorik!: Thagarab
ez da
profetek agindutakoa
beteko
txiroak eta aberatsak
berdinak izango diren gaua
ez da gaurkoa: Athel

ezer gehiago esaterik gabe
bideari lotzea besterik
ez zen
bien artean

Thagarab-ek
Ixiltasunez
amaitzeko
bihar betiko lekuan?
itaundu zion Athel-i

gaur bezala: Athel

herrian
iskanbila zela eta

hurrengo
elkar ikusiko zuten arteko
denbora

herrian
elikagaiak
urritzen
zihoazen.
ez zen
hegazkinik
lurreratu
eta
itxaropenak
galtzen
hasiak ziren

hala eta guztiz ere,
misiolariek
janaria
eta jantzi berriak
merkaturatzen
zituzten

nola liteke posible,
hegazkinik ez eta
beti
produktuz beteta
egotea?

galdera hau
buru nahasi eta beltzetan
zalantzetan
jirabiraka
zebiltzan artean
egun luzeak
igaro ziren

baina
mugimendu gutxi

ez zuten
egunak
pasatzen uzten baino

jendearen asmoak
indarrak
ahulduz
eta
misiolarien
agindurik
betetzen ikusi ez,
auzokoen artean
hasten
zihoazen
deskonfiantzak

argi zegoen
bazutela
altxorren bat
izkutuan
gordeta
misiolariek

kargamenturik
inongo laguntzarik
edukitzea
sabelak noiz estanda egingo
ezinezkoa bait da

egia zein zen, alegia, sumatu arren
aldaketaren bat
proposatu aurretik
hilabeteak pasatzen ziren;
ados jartzen;
ezin pentsaturik
zer egin

zirkinik ez

herri guztia
egoera larria ikusirik,
buruz belarri
murgildu zen

gazteek ez zuten
elkar ikusteko
betarik
ez aukerarik

Athel-ek
ibaira joaten
jarraitzen zuen
eta
lana arintzeko
ahizparekin
egiten zuen
joan etorria

lixiba bukatzean,
Thagarab
non ikusiko
atzera begiraka
gelditzen zen
noizbehinka
bidean
(37) «Athel, zertaz zagoz lo?

(38) erria gosez
(39) eta zu amesetan»?
entzutean
bere asmoak
itotzen ziren arte

Ama: eskerrak!
ibaitik
bidean
denborarik galdu barik

bikoteak
ez zuen
lanean
gatigaturik

herriaren ahulezia ikusirik
atseginik
ez zegoen
gazteentzako

umorea dela azken gauza
galdu behar dena esanez
neskatoak; Athel,
egun latzak jasaten egon arren,
kanta-kantari, kontu-kontari
joaten zen
lixiba
eta garbiketak egitera

garbiketei amaiera eman ondoren,
egun berria
nola agertu ohi zuen
gogoratuz
Athel aho zabalik
aguayuen txioak eta
phatirien narrasak entzutean,
zentzua galduta izaten zuen;
eta kawaria lo
dagoen artean
aditzean thefarisen horbel hotsa
orduan ziren
esnatzen
bere sentipenak

bueltatu zarie (40)
loak artu barik (41)
ordu onian (42)

zatozie
Athel: zer ba? Iraultza deia ala?
Ama: ez, olakorik ez,
erriko aittittek
batzarrera
deitu dau auzoa,
beraz,
Sukaldekoa
egiteko
dosuela
jakinaraztea zan
Athel: zertaz da ba batzarra?
Ama: aitak esan dabenez
asabaren bat
bueltatu dala edo...
zurrumurruak...
Athel: arbasoak! banekien!
Ama: ixo ez dago ezer ziurrik

jendearen esamesanak
ez zebiltzan oker

berriak
ezin hobeak
ziren

laister ikusiko zuen
Athelelk
Thagarab
eta
misiolariek esan bezala
arbasoak herrian zeudela,
Jainkoa heldu zitzaiela,
Maclay Jainko berria
zuria zela,
opariak
erregaliak
kargamentuak...
dena zela

errekatik: Ama (43)
ez dogu ba, barri txarrik edukiko? (55)
ez arduratu! (44)
aittona zarrak (45)
kontseilura
joateko esan dau, orduan, (46)
janaria
prestatzeko
eta moldateko (47)
esatea (48)
bakarrik: Ama (49)
zein da batzarraren gaia?: Athel
aparteko lurreratik (50)
etorri dan Jaungoikoren bat (51)
presentatu bihar deuskuela edo... (52)
esamesanak...: Ama
horrela izan daitela!: Athel (53)
ez ilusio geiegi egin! Ama

egi bihurtu ziren
ilusioak

guztiz onak ziren
konparaezinak
notiziak

ahal bezain laister
mutikoa
ikusiko zuen,
gertaturikoa
kontatuko zion Thagarab-i:
gehiago itxaroterik ez,
azkenean aske,
menpekotasunetik at
kargamentuak berriro,
janaria
jostailuak
tresnak...
ona egiteko nahia

eskuzabaltasuna...
herriak ez zuela
porrot egingo

handik aurrera
egunero
elkar ikusiko zutela
esango zion

Athel: azkenean elkarrekin!
Thagarab: zer dela eta?
Athel: heldu da
azkenean
Jainkoa!
Thagarab: zer dela eta?
Athel: heldu da
azkenean
jainkoa!
Thagarab: zer Jainko?
Athel: Mclay!
Thagarab: eta, zergatik ez Thagarab?
Athel: nolako gauzak
esaten dituzu!
zu nola izango zara
Jainkoa?
Thagarab: eta zergatik ez?
Athel: Jainko bakar bat dagoelako
Thagarab: eta nik
Jainkoa ni naizela
esaten baldin badut?
Athel: Mclay...
Thagarab: usurpatzailea litzateke...
Athel: baina hori ez da egia!
Thagarab: frogarik ba al duzu?
Athel: ez dut frogarik behar!
Thagarab: eta nola dakizu
bera dela Jainkoa?

zela dena...
behingoz
ez zutela miseria gorririk jasango

Athelek
esango zion
egunetik egunera
gehiago maiteko zuela

batera berriro!: Athel
une amestua!: Thagarab
aditzen duzu
jendea
kantatzen?: Athel
zergatik horrenbeste kantu?: Thagarab
arbasoen buruzagia
hainbeste itxaron duguna
etorri zaigu: Athel
nor etorri dela?: Thagarab
gure Jainkoa!: Athel
eta ni zer?: Thagarab
astakeriak
zentzungabekeriak...
Mclay
eskuzabala da eta...: Athel
zergatik Mclay zuen Jainkoa?: Thagarab
boteretsu ahalguztiduna delako: Athel
hemen naukazuela boteretsu badiot
Thagarab
zer?: Thagarab
Mclay...: Athel
traidorea...: Thagarab
ni nahastu nahian zabiltza!: Athel
egiatza al dezakezu?: Thagarab
ez dut horren beharrik!: Athel
espero zenutena Mclay dela
ziur al zaudete?: Thagarab

Athel: kontseiluak
hala sinesten duelako
Thagarab: eraman nazazu
bere aurrera
eta nik
esaten dudana
egia dela
ikusiko duzu

solasean hasi arren
azkenengo hitz garratz
eta mehatxatzaileak
kontutan harturik,
Athelek
Thagarab
herrira eraman zuen

Maclay-ren etxean
misiolariak eta apaizak
sartu-irtenean
zebiltzan
zerbait
gertatu bailitz,
Athelek
Mclay ikusi nahi zutela
adierazi zuenean,
herriarentzako
kargamendu gehiagoren bila
joana zela
esan zieten

Athel: ikusten?
Jainkoak
bere lurretatik
dakarkizkigu
produktuak

asaba zaharrak
horrela kontatu izan du: Athel
zuk
ni
banaramazu berarekin hitzegitera
frogatuko dizut
Mclay
ez dela zuen Jainkoa

Atheli
berba mingotsak
ez zitzaizkion gustatzen baina
gaiaren garrantzia
ikusita,
prest zegoen
edozer egiteko

zerbait gertatu bailitz
kanpora eta barrura
urduri eta arineketan
etxe inguruan korrika bizian
gizon zuriekin
zebiltzan apaizak eta
esan zuenean
mutikoak eta berak
Jainkoarekin hitz egin egin nahi zutela,
janari bila
entzun zute
urrunera
irten zela

konforme?
Mclay-k
Jainkoen etxetik
behar ditugun gauzak
ekarriko dizkigu: Athel

Thagarab: eta non dago bada?
Jainkoaren lur hori?

Athel
erantzunik gabe
pentsati
gelditu zen

Thagarab: bueno, ez zaitez
horrela jarri
bromatxo bat
izan da eta!

Thagarab: eta geureari ekinez,
ez al ginen
betiko lekuan gelditu?
Athel: bai baina
herrira jeitsi gara!
zer dela eta
hain urduri?

Thagarab: goazen,
gauzatxo bat
erakutsi behar duzu
Athel: baina
nora
naramazu?
Thagarab: ez al zara gogoratzen?
ia-ia heldu gara!
itxi begiak!

AURREAN SAGARTXO

Thagarab: begiak itxita dituzu?
Athel: bai!

misteriozko
sekretua non gordetzen du?: Thagarab

aho zabalik
gelditu zen
burua makur
Athel

haserretu
ez mesedez!
barre egiteko
jokoa!: Thagarab

gu ez ginen ba
mendian ikustekotan
urrengorako?: Thagarab
zuk esan bezala
Mclay ikustera
joan gara
baina...: Athel

etorri nirekin!
sekretua non dagoen
jakin nahi baldin baduzu: Thagarab
nondik
eta zer egitera
zurekin?: Athel
heldu eskutik eta itxi begiak!
ez al zara mendi hauetaz oroitzen?
ez ireki oraindik, entzun?

BAT, NESKATORI BEGIRA...

prest?: Thagarab
prest!: Athel

Athel: zer da Thagarab?

Thagarab: gogoratzen hazi txiki haiek?
Athel: bai!
Thagarab: egunero etorri naiz
lur zati honi
ura botatzera,
lurrari eta urari esker
hazi txiki haietatikl
sagar arbola hau
sortu da

Athel: eta zertzu dira
gauza
edo baloi horiek?
Thagarab: arbolaren fruituak
Athel: fruituak?
Thagarab: bai! SA-GA-RRAK
Athel: SAGRRAK?
Thagarab: SA-GA-RRAK
probatu bat!
Athel: hau
zurien janaria da
ez da hala?
Thagarab: biona da Athel,
ez al zara gogoratzen
bion artean
erein genuela?
biona izan dadin
landatu,
loratzen ikusi
eta zaindu dut;
gure sekretua
izan dazin

begiratu aurreko edertasun paregabea!

zein edertazunez ari zara?: Athel

haziak lurpean jarri genituela?
ura edan nuenean?: Athel
bai!
amari aita
joaten bazaio
gertatzen den bezala
sortzen da
amaren sabeletik
haurra

dindiliska dauden
borobil berdeak
zer dira?: Athel
hazietatik datorkizkigun sagarrak
janaria?: Athel
hori da! goldenak
gordinak': Athel
gol-de-nak!: Thagarab
dastatu nahi baduzu
nik jan beharrekoa
ez dela
uste dut: Athel
zurea eta nirea dena,
biok
jateko
gogoratzen?
erein
tximistetatik babestu
tximeletatik urrundu
tximinitik so egin
txitoa bailitz
maitatu dut

Athel: eta zer
esan nahi du
gure sekretu-sinboloak?
Thagarab: apurtu sagarra
erditik bi,
usaiti
eta dastatu
Athel: eta?
Thagarab: sagar horren gardentasuna
izango da
gu bion arteko
leialtasunaren ezaugarri.
nire maitasunaren froga
nahi duzun bakoitzean,
ireki sagar bat
eta adi egon
sagarrak esaten dizunari
Athel: zertarako batu dituzu hainbeste?
Thagarab: etxera eraman ditzazun
Athel: etxekoei eman
diezaieket?
Thagarab: ez,
sekretua izaten
jarraitzen du
Athel:otzaran dauden
fruituak
nondik atera dituzu?
Thagarab: lursagarrak?
Athel: bai, lursagarrak!
Thagarab: sagarren antzera!
lurretik!
Athel: lusargarrak
ezagutzen nituen;
misiolariek saltzen dituzte
merkatuan

Athelek
herriko jendeak

gure sekretuari buruz
non daude
hitzak?: Athel
ni bainintz
zatitu sagarra
aurkituko duzu
sagarraren muina: Thagarab
zer gertatzen da?: Athel
bihotzean dakusazun zindotasuna
egia elkartuen
lotura
izango da.
entzun
nire begien disdira,
ikusi bihotzaren usaia
sentitu
haziak bikuitzean...: Thagarab
otzara gainezka duzu sagarrez: Athel
hartu, zuretzat dira: Thagarab
eta erakutsi
jaten nere familiakoei?: Athel
ez, jarraituko du
gu biona
izaten: Thagarab
beste hauek
nola deitzen dituzu
Thagarab?: Athel
patatak?: Thagarab
patatak: Athel
barazkiak bezala
beste fruituen antzera: Thagarab
merkatuan
ikusita
patatak
ezagutzen nituen: Athel

ez zekien
ondo zer zen

jakin nahi zuen sekretua,
eskuetan zuen

otzara eskuan
irribarrea ezpainetan,
Athel etxera
joan eta
sagarrak
izkutatu zituen

hurrengo goizean
zurrumuru iskanbilatsu batek
esnatu zuen
auzo guztia.
«Maclay hila da»
entzuten zen
ate izkinetatik

Athel: baina zelan da posible
Herriak: misiolariek
gure arbasoetariko bat zetorrela
esan eta guk
sinistu egin genduan
Mcalay
azur ta mamizko
gixona zan
Athel: gixona zala?
Herria: on ilda dago!
Athel: ezin da baina
Jaungoikoak ez diraz iltzen!
Herria: iruzurra
sartu deuskue!
il eta gero
gixona zala
eta ikustearren
itxasora bota eben
ona emen
gaur goizian

hura
Athelek.

Athel
sartu zen
sagarrekin
pozez
kantari
etxean

egun argia baino lehen
herri guztia
garrasi beldurgarri batek
iratzarri zuen.
ahots bat zebilen
esanez
«Maclay hil da»

ezin da gure Jaungoikoa izan!: Athel
ziria sartu deuskue (56)
esan eskuenean (57)
bai-bai
arbasoak zetoztela (58)
zurixe zan (59)
ilkorra (60)
Mclay: Herriak (61)
ezin gixona izan: Athel (62)
zelan il da, ba?: Herriak (63)
Mclay ilda (64)
ezin ulertzekoa!: Athel (65)
gezurra guri
baina ez konturatu barik (66)
Mclay (67)
gure arbaso izana (68)
usteltzen
asi aurretik (69)
ondartzan (70)
bistu gasku (71)

gorputze ondartzan
billatu dauana!
andre koittaua!

Herriak: gizon zuriek
badakite
gure kargamenduaren
sekretua!

Athel: SEKRETUA!

Herriak: gizon zuriek
jakin ezkero,
misiolariek ere derrigorrez
ezagutu biar dabe!
guazen misiolariai
geure sekretuaren ezaguera
ateratzera

Athel: SEKRETUA!
non entzun ote du nik
hitz hori

misiolariek
ezer ez zekitela
esaten zuten

Athel: herriak
jakin nahi duen sekretua
nere esku dago

auzokoek
gero eta gorroto handiagoz
apurtzen zituzten
misiolarien txabolak

Athel: baina sekretua da!
nere hitza eman nuen

amen andrea (72)
guzurrik barik (73)
negarrari ezin eutsita: Herriak (74)

sekretua
jakin
berri daukate (75)
zuriek: herriak

nonbaiten entzun dut nik hitz hori!

aberastasunen iturburua
nun dagoan (76)
jakin
badakixe gixon zurixak (77)
geure eskubideak (78)
eskatzera (79)
guazen jaikitera!: Herriak (80)

zer ote da
deritzoguna
sekretua: Athel

torturapean egon arren
zioten behin eta berriz gizon zuriek
ez zekitela zertaz ari ziren

azkenean
zertaz doan
badakit

misiolariak
torturatzen
hiltzen
erretzen hasi ziren

azkenik, gogoratu dut!
Thagarab-ek irakatsia izan behar du!

nahiz eta misiolariak
zuriak izan
Athelek ezin zuen ikusi
nola hiltzen zituzten...

Athel: entzun!
entzun!
Thagarab da
zain gagozan Jaungoikoa

Herriak: profetek
zain gagozan Jaungoikoa
Yali dala esaten dabe.
zein da Thagarab ori?
Athel: Thagarab-ek badaki
lursagarrak
lortzen

Athelek,
otzaratik lursagarra
atera zuen
auzoko guztiei erakutsiz

nor ote zen Yali?

herrikoek
laister onartu eta izendatu zuten
Jainkotzat
Thagarab

nor ote zen Yali?
Athel-ek
zalantzak zituen

SAGARRAK ESAN NAHI DIO

nor zen Yali?

etsaiak izan
arren
basakeriarik
nere aurrean ez, arren: Athel

aizue,
entzun neuri! (81)
geure arbasoa (82)
Thagarab da: Athel (83)

ez dabe ori esaten (84)
paperek (85)
geure aittonek (86)
Yali ei da urrengo...: Herriak (87)
kargamentua ereiten
zelan eta nun (88)
badaki Thagarab-ek: Athel

orduan,
eskuetan hartuz
lurreko tuberkuloa
herriaren arreta erakarri zuen

nondik atera zen Thagarab?

norbaiten beharrez
aurrean jarri zitzaion lehena
itsu-itsuan
izendatu zuten auzoko kontseiluan

galdetzen zuen bere baitan
Yali nor ote zen
neskatxak

NESKATO IREKI NAZAZU

zein Thagarab?

Thagarab zen
benetako Jainkoa?
boterea edo
bera maite al zuen?

Athel-ek
Thagarab-en maitasunez
zalantzak zituen;
orduan,

sagar bat irekitzea
zela onena
pentsatu zuen

sagarra ireki
eta
barren-barrenetik
ar bat
irten zen

herriari
oraingoan
ez zion inork
iruzurrik sartuko
gezurrik esango
Jainko faltsurik inposatuko...

auzoa
sekretuari buruz
galderak egiten
hasi zen
berriro
eta Thagarab-ek
boterea mantentzeko
era bakarra
zela ikusirik,
sekretuak

herriak esan bezala itxaroten zeudena
Yali ote zen?
zer nahi zuen
Thagarab-ek?

bere arteko kezkak zituen
Athel-ek
Thagarab-en Jainkotasunaz.
mutilak esan bezala
erabaki zuen
sagarraren esana entzutea
muina usaitzea
Athelek

animalitxo luze bat
agertu zen
geldi-geldiro
muin erditik
sagarren bihotzera heltzean

ez
panpinik
ez
umekeriarik
ez
gehiago

Thagarab-ek
ez zuen ezer
entzun nahi eta
sekretua Jainkoena zela esaten
jarraitzen zuen;
sekretua gordetzea
bidea
mugatzea
edo
herriko

Jainkoenak zirela
eta auzoak
ez zituela jakin behar
esan zuen

bestalde
misiolariek,
herriaren nahiak ikusita,

berriro
beren aurka
joan ziteezkela
pentsatuz,
zera esan zuten
argibide gisa
jendea lasaitzeko

«lehenengo
Jainkoak
lurra eta zerua
eratu
eta izaki bi,
Adan eta Eva,
sortuta
ezer faltatzen ez zen
lurralde batetan
jarri zituen;
paradisua
kargamentuz
beteta zegoen:
haragia,
ura,
fruitu gogoz...
baina bazuen Jainkoak
sekretu bat
eta Adan-i kontatu zion;

aberastasunez jabetzea
uste zuen
argi eta garbi
Thagarab-ek

zuriek
beldurra zuten
erasoaldi berri bat jasateko

eta

haserre bizian
torturatzeko asmotan
ibiliko zirela eta,
ondoko ipuintxoa
asmatu zuten
misiolariek:

bere irudira
gizakiak
sortu
maitasun osoz
gizona eta emakumea
Jainkoak
utzi zituen
paradisu perfektoan;
naturaren aurrean
Adan eta Eva
lur ura
tresnez
eta
jan
edanez
gainezka zegoen.
mendeetan zehar
ondo gordetako altxorra
konfidantza guztiz
agertu zion Jainkoak Adan-i

paradisuan
jaki gozo eta eder bat
jarri zuen
Jainkoak
gizonarentzat

SAGARRA

eta zera esan:
«ez dezala inork
fruitu hau
jan

fruitu honetatik
jaten duena
madarikatua
nere begien aurrean

Adanek
ez zituen
Jainkoaren hitzak errespetatu
eta mendeku gisa,
Jainkoak
kargamentua
paradisutik atera eta
Ginea Berrira bidaltzen
hasi zen
baina jaunaren bihotz ona
damutu egin zen
mendekua hartu beharraz,
eta horregatik,
Adanen pekatua parkatzeko
eta
Jainkoarengan sinesten
erakusteko,
misiolariak bidali zituen
Ginea Berrira

fruitua erein zuen
Nagusiak
lur prometatua
Adan
eta Evarentzat

SAGARRA!!!

gizonak
dastatu
ezkero

izango da pekataria
eta nere boterearen menpe
bizi beharko du»

Evak

sagarra janez

etsaigoa
irabaz arazi zigun

beraz, guretzat.
zigor hau ikusirik
zeharo
damu zen Jauna

Evak sagarra ereiteko

fedea izaten

gure lur honetara
zuriak sartu ziren

«herriak sinesten duen neurrian
bidaliko ditut kargamentuak»

JAIO NAIZ JAN NAZATEN,

Athel
pekataria
nor zen Yali?
sagarra jan zuen...
berak ez zekien...
Jainkoak,
bere hutsegitea zela eta,
ez zien
kargamentu gehiago bidaliko

apaizak
borrokara eramango zuen
hizkuntza
erakutsi zion...
eta
hizkera zahar hura
erabiltzearren
borrokatuko zela
esan...

azken finean,
Thagarab ezagutzearren...

sagarrak atera zituen
ohe azpitik
galderak egiteari utzi
eta azken zalantzak kentzeko

baina han ez zegoen
kiratsa besterik

ikusiko dituzue arbasoak,
esan zuen Jainkoak

TA EZ ORTUAN EGOTEKO...

Eva bera zen...
eta Thagarab Adan?
nahi gabe...
pekatu egin zuen...

Athelen erruz

ez zuten jango

orain
bazekien
elea
etsaiaren aurka egiteko

orain badaki.

«ahantzitako hitz xorta bategatik»

zuen

sinplekeria bategatik...

otzaratik
hartu
eta duda guztiak alde batera egiteko
sagar bat ireki zuen

sagar ustelduak

sagarrak
usteldutа zeuden...

uraren marmarrak,
etengabeko zarata amaigabeak,
egunerokotasuna zekarkion burura
aitonaren berriketa errepikakorra...

«subiranoak
herria indarrez hartu ezkero
herritarrek
subiranoa hil dezakete;
tradizioak
traidorerik
ez du onartzen»

derrigorrezkoa zen
ekintza burutzea.
nork hobeto Athel-ek baino?

«herri honen Jainkoa
beltza izan bide da»

herritarra denaren
eskubide osoa zuen

«Yali omen da
itxaroten gaudena»

eta...
gaizki eginaren ordaina...

ibaitik zetorkion hezetasunaz
goizero aurpegia garbitzen zion eurixeak
tradizioa gomutarazten zion
arratsoroko istorioaren argudio bera...

erregeak
bortxatuko balu auzoaren izpiritua,
auzokoek
justizia beren esku hartuko dute;
ez du ontzat hartzen
usadioak
usurpatzailerik»

beldurrak alde batera utzi eta
aurrera egin behar zuen
berak bakarrik

sudurzuloetan apaingaiak dituena da
gure Zaindaria

arrazoiak bazituen
Athel-ek

hori diote denek:
Yali dela benetakoa

amaieraren hasiera...
...
...
...

lixiba egin bitartean
aitonaren esanak
gogoratu
eta amonak erakutsitako
kantua
errepikatzen zuen Athelek
arropari harrriaren kontra ematean
bere istorio arrunt bat...

BAT
BI
IRU
LAU
BOST
SEI
ZAZPI
ZORTZI
BEATZI
AMAR
AMAIKE
AMABI
AMAIRU
AMALAU

AMABOST

Gaur izango ote da
hegazkinak
lurreratuko diren
gaua?

etengabeko zarata amaigabeak
asaba zaharraren berriketa errepikakorra
jendearen istorioak eta kontatzen zituen
irriak
historia
dena izan bailitz
asmaturiko

MATXIN BARRABAS
MATXIN IPURDI
KOLKUA BETE DIRU
IKOMELAU
PITO MOTZ
ANKA MEI
AZPI
NESKIAREN KORTZI
JO TA ERATZI
KABO DEL MAR
LUKAINKE
EUGENIO KALTZA ANDI
EGIA PASTELERU
MIGUEL Hamalau

TXORDO PITO MOTZ!!!

AZALPEN BATZU

(1) Athel: urduri ninduzun
(2) Thagarab: nik hitza eman ezkero
ez dut hutsik egiten
(3) Athel: ez, hori ez!
(4) Thagarab: bai, hori da
(5) Athel: ia bat ere
ez dugu elkar ezagutzen
(6) Thagarab; nik zu ezagutzen zaitut
(7) Athel: ezin nauzu ezagutu
(8) Thagarab: badakit non bizi zaren
(9) Athel: ezin nauzu ezagutu
(10) Thagarab: nik ikasi nahi nut
(11) Athel: zer da
ikasi nahi duzuna
(12) Thagarab: dena
(13) Athel: ia-ia ezin dugu
elkar
ulertu
(14) Thagarab: nik ikasiko dut
(15) Athel: zu zuria zara
eta ni berriz...
(16) Thagarab: polita!
(17) Athel: nondik zatoz?
(18) Thagarab: sudur polita duzu
musu bat
emango nikuze
(19) Athel: zer?
(20) Thagarab: muso bat
emango nizukela
(21) Ama: gaur ere
egon gara
non orain arte?: Athel
ez nuela beteko uste zenuen, ez da?
zin egindako promesa: Thagarab
ez da hori ¡: Athel
esandakoa beti betetzen dut: Thagarab
ez dakigu
ezer: Athel
nik zutaz badakit...: Thagarab
ezin jakin nolakoa naizen: Athel
nora joaten zaren, badakit: Thagarab
horrek ez du ezer esan nahi: Athel
azkar ikasten dut: Thagarab
irakatsi behar dizudana
zer da?: Athel
den-dena: Thagarab
zuk eta nik
konprenitu
beharra dugu lehenik eta!: Athel
azkar jakingo dut zer nahi duzun: Thagarab
zure azala zuria da
eta ni berriz...: Athel
guztiz ederra!: Thagarab
nongoa zara?: Athel
zure sudurra gustatzen zait
sudurrean
musu bat: Thagarab
zer esan duzu?
sudurrean
musu bat: Thagarab
berandu zatoz
mutil horrekin hizketan?: Ama

(22) Ama: ez al diguzu
ezer ere kontatu nahi
(23) Ama: esan iezaguzu
nongoa den
(24) Athel: ez dit
hortzak hitzik egin
(25) Ama: baina
bere gurasoak
zeintzuk diren
jakingo duzu

(26) Athel: ez
ez dakit
ez diot galdetu
(27) Ama: eta bizi?
(28) Athel: ez dakit
(29) Aita: Athel
herrikoa izan ezkero
zure amak eta nik
derrigorrrez ezagutu behar
bere gurasoak
eta
beraiekin hitz egitera
joateko
esaiguzu
nor den mutilori!
(30) Athel: ez duzue ulertzen?
ez da herri honetakoa
(31) Aita: beraz...
(32) Athel: ez dakidala!
baina
apaizak irakatsi zidan
antzerako hizkera
ezagutzen du
(33) Aita: hizkera bitxi hori
dakien beste bat
zuri
andereño postua kentzera
etorritako arrotzen bat
izango da
(34) Athel: ez aita
(35) Ama: Athel,
auzo honetako
andereño izan
behar duzu;
horrela bada,
ez hizkera hori

zerbait
gurasooi?: Ama
gutxienez
zeintzuk dituen gurasoak: Ama
deus esan
gabe ibili gara hizketan: Athel

gutxienez
aita eta ama
ezagutu bai
ez da?: Ama
ez ditut ezagutzen
gurasorik duen edo ez
ez dakit: Athel
non bizi da?: Ama
ez dut esango: Athel
ez al dugu ulertzen?
auzo txiki honetan
egun biren buruan
dena jakiten da.
zeintzuk diren
edo
ezagutzak egiten hasteko
edo jakitun egoteko bada ere
nongoa den
esan eta kitto!: Aita
ulertu nahi ez?
ez da hemen bizi: Athel
nongoa dugu?: Aita
ez didala esan!
nik dakidan
hitz egiteko era
darabil
beraz, apaizaren auzo berekoa izango da
zutaz aparte
inork ez zekiela uste genuen
alabatxo
gure ondasun nahian dabilen
etsairen bat
seguraski: Aita
oker zabiltza: Athel
maite
neskek
irakastea dute amesten, beraz,
aukera profitatu
apaizak irakatsi zizuna
ikastea izerdiz ordaindu eta

justu-justu ikasi duen
horrekin
harremanik izan
postua kendu nahian
aldamenean ibiliko duzu eta
(36) Athel: ez du
ez niri postua kendu beharrik
hizkera hori
berea du, bere-berea;
ez nik bezala
ikasia
ez duzue ulertzen?
bera zuria da!

(37) «Athel: zertan zaude lo?
(38) herria gozez
(39) eta zu ametsetan

(40) ibaitik
(41) bidean
(42) denborarik galdu gabe
(43) Ama: zatozte
(44) Ama: ez, horrelakorik ez,
(45) herriko aitonak
(46) deitu du auzoa,
(47) egiteko
(48) duzuela
(49) jakinaraztea
(50) Ama: aitak esan duenez
(51) asabaren bat
(52) itzuli dela edo...
(53) Athel: arbasoak! banekien!
(54) Ama: ixo! ez dago ezer ziurrik!
(55) Athel . zer ba? iraultza deia ala?

(56) Herriak: misiolariek
(57) gure arbasoetariko bat zetorrela
(58) sinetsi egin genien.
(59) Mclay
(60) hezur eta mamizko
(61) gizona zen
(62) Athel: gizona zela?
(63) Herria: orain hilda dago!
(64) Athel: ezinezkoa da
(65) Jainkoak ez dira hiltzen!
(66) sartu digute!
(67) hil eta gero
(68) gizona zela

mutil horri lekua utzi ondoren
damu izan
aurretik,
usainean dabilen artean,
moztu lehen bait lehen: Ama
berak ez du ikasi beharik izan
bere bizitza
nerea bezain ederra
jaiotzetikakoa du;
elkar ulertzeko egina
da gure patua.
adiskide, lagun zuria
lagun zuria!: Athel

bueltatu zarete
loak hartu gabe
ordu onean
ibaitik: Ama
ez kezkatu!
aitona zaharrak
joateko esan du
prestatzeko
esatea
bakarrik: ama
urruneko lurreratik
etorri den Jainkoren bat
aurkeztu behar digutela edo...
horrela izan dadila!: Athel
ez ilusio gehiegirik egin!: Ama
ez dugu bada, berri txarrik izango?

iruzurra sartu digute
esan zigutenean
arbasoak zetoztela
zuria zen
hilkorra
Mclay: Herriak
egin gizona izan!: Athel
nola hil da, bada?: Herriak
Mclay hilda!:
ulertezina!: Athel
baina ez konturatu gabe.
Mclay
gure arbaso ohia

(69) itsasora jaurtzi zuten hasi aurretik
(70) hona hemen hondartzan
(71) gaur goizean berpiztu zaigu
(72) gorpua hondartzan hemen anderea
(73) bilatu duena! gezurrik gabe
(74) andere gizagaixoa! negarrari ezin eutsirik: Herriak
(75) gure kargamenduaren berri dute
(76) jakin ezkero, non dagoen
(77) ezagutu behar dute! badakite gizon zuriek
(78) goazen misiolariei gure eskubideak
(79) gure sekretuaren ezaguera eskatzera
(80) ateratzera! goazen jakitera!: Herriak
(81) entzun entzun niri!
(82) Thagarab da gure arbasoa
(83) itxaroten gauden Jainkoa Thagarab da: Athel
(84) Herriak: profetek ez diote hori
(85) itxaroten gauden Jainkoa izkribuek
(86) Yali dela diote. gure aitonek
(87) nor da Thagarab hori? Yali omen da hurrengo...: Herriak
(88) lursagarrak nola eta non